Código de validación/*Balidazio kodea*
6A6O5B35131C0N0Q09KK

***2020KO AZAROAREN 24AN EGINDAKO OHIKOA BILKURAREN AKTA***

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 24 DE NOVIEMBRE DE 2020**

| **Asistentes/*Etorritakoak*** |
|---|
| **ALCALDE/*ALKATEA*** |
| JUAN CARLOS ABASCAL CANDÁS |
| **CONCEJALES/*ZINEGOTZIAK*** |
| PEDRO GALLEGO MONTEIRO<br>RICARDO MARTÍN LÓPEZ<br>MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO<br>PAUL YARZA AGIRREGOMEZKORTA<br>SILVIA SERRANO GÓMEZ<br>JOSE MANUEL LÓPEZ CONDE<br>ALBERTO GARCIA ABAD SÁNCHEZ<br>FRANCISCO JAVIER SÁNCHEZ GÓMEZ<br>MARIA URIONAGUENA ARANSOLO<br>JULEN DOMINGUEZ SANCHEZ<br>ROSA MARIA CID SEARA<br>BEATRIZ GÁMIZ MATA<br>JOL GUISASOLA GARAY<br>ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA |
| **SECRETARIO/*IDAZKARIA*** |
| DANIEL SALAZAR IRUSTA |
| **DIRECTORA/*ZUZENDARIA*** |
| ROSALÍA HERRERA YUSTE |

| **Ausentes/*Etorri ez direnak*** |
|---|
| CARMEN MARIA DEL RÍO CABRERO<br>JOANNA DÍAZ BENITO |

*Bitarteko telematikoen bidez, 2020ko azaroaren 24an 9:30an, orrialdearen hasieran adierazten diren Udaleko kideak lehenengo deialdian bildu dira, Ohikoa*

A través de medios telemáticos, a las 9:30 del día 24 de noviembre de 2020, en primera convocatoria, se reúnen los/as miembros de la Corporación antes

*bilkuran.*

citados/as, en sesión Ordinaria .

*Idazkariak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.*

Una vez comprobada por el Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1. *BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA***

**1. INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

*Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraiengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.*

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

*Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.*

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

**2. *2020/11/17AN EGINIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA***

**2. APROBACIÓN DEL ACTA DE FECHA 17/11/2020**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Lehenengo erabakia:***

***"2020/11/17an eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**Primer acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 17/11/2020, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

3. ***ERMUKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA***

3. **INFORMACIÓN DEL PLAN DE RACIONALIZACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EN EL AYUNTAMIENTO DE ERMUA**

4. ***TELELANARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO INFORMAZIOA ERMUKO UDALARENTZAT***

4. **INFORMACIÓN SOBRE NORMATIVA SOBRE TELETRABAJO PARA EL AYUNTAMIENTO DE ERMUA**

5. ***2021EKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA***

5. **APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2021**

| *BOZKETAREN EMAITZA* | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Bigarren erabakia:***

*"Kontutan izanik administrazio publikoak, bere autonomiaz eta autogobernuaz baliatuz, giza-baliabideak antolatzeko daukan bitarteko teknikoa LPZ dela eta zerbitzu publikoa emateak dakartzan beharretara egokitu behar duela, LPZk egungo beharrei ezezik korporazio bakoitzak egiaz dituen beharrei ere erantzun behar die.*

*Moldaketa-prozesu horrek aukera ematen dio toki-korporazioari LPZ aldatzeko, horrek zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman beharrak dakartzan eskakizunei erantzuten ez dienean. LPZk tresna dinamikoa behar du izan, ez estatikoa edo moldakaitza, eta dinamismo eta moldakortasun hori Konstituzioak toki-autonomiari emaniko garantien aukera zabalean babesturik daude.*

*Hala ere, administrazioaren egiazko beharrei erantzuteko tresna behar duela izan jakinik eta, ondorioz, aldagarria, egungo arauen markoa aztertu beharra dago, zeren eta hori zatituta eta toki bakarrean bilduta egon ez arren, legezko arau-multzo bat dago horri buruz, bete beharrekoa dena.*

**Segundo acuerdo:**

"Considerando que la RPT es el instrumento técnico al servicio de la Administración Pública para la organización efectiva de sus recursos humanos en el uso que pueda hacer de su autonomía y autogobierno, debiendo adaptarla a las necesidades que le exige la prestación efectiva de sus servicios públicos, aquella tiene que responder a necesidades no solo actuales sino reales de la propia Corporación.

Este proceso adaptativo exige la posible modificación por la Corporación Local de la RPT cuando no responda a las exigencias que le impone el deber de una prestación eficiente de los servicios públicos, debiendo convertirse en un instrumento dinámico y no estático o pétreo; dinamismo y adaptación que se hallan amparadas por el arco de la garantía constitucional de la autonomía local.

Ahora bien, siendo conscientes de que se ha de tratar de un instrumento que debe responder a las necesidades reales de la Administración, y por tanto, susceptible de modificación, se ha de reconsiderar el actual marco normativo por cuanto que, aunque este se encuentre fragmentado y desubicado unitariamente, existe un

conjunto de normas legales al respecto que habrá de cumplirse.

*Egungo arauek LPZ onartzeko eskumena eta, ondorioz, hori aldatzekoa Udalari ematen diote Udalbatzarraren bitartez, hala ezartzen baitu TJOALen 22.2 artikuluaren i) atalak, eta eskuduntza hori ezin daiteke eskuordetu (TJOALen 22.4 artikulua).*

La regulación actual atribuye la competencia para la aprobación de la RPT y consecuentemente de sus modificaciones al Ayuntamiento constituido en Pleno, en virtud de lo previsto en el art. 22.2.i) LRBRL, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación (art. 22.4 LRBRL).

*Baina hala eta guztiz ere indarreko legeriak ez du xehetasunez arautzen LPZ onesteko eta aldatzeko berariazko prozedura zehatzik, baina badira maila ezberdineko arauak horretarako izapide eta dokumentu batzuk bakoitza bere aldetik aipatzen dituztenak.*

Ahora bien, no obstante lo anterior, la normativa vigente no regula de forma detallada un procedimiento específico o concreto para la aprobación y modificación de la RPT, sino que existen diferentes normas de distinto rango que se refieren separadamente a alguno de sus trámites y documentos.

*Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 13. artikuluak ezartzen du lanpostu zerrendak direla Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langile-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko duten baliabidea.*

En la CC AA del País Vasco dispone el Art. 13 de la Ley 6/ 1989, de la Función Pública Vasca, las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las Administraciones Públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos para su desempeño y clasifican cada uno de ellos.

*Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 18. artikuluak agintzen du egitura organikoan egiten diren aldaketak onesteak horiei dagozkien lanpostuen zerrendak ere aldi berean onestea ekarri behar duela, baina, beti ere lanpostu zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko direla lanpostuak.*

En la CCAA del País Vasco el Art. 18 de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca la aprobación de modificaciones en la estructura orgánica exigirá simultáneamente la de las correspondientes relaciones de puestos de trabajo, añadiendo que, en todo caso, la creación, modificación o supresión de puestos de trabajo se realizará a través de las Relaciones de Puestos de Trabajo.

*Garrantzitsua da kontutan izatea beharrezkoa dela, TJOALTBren 126.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, espedientearen hasieran pertsonal saileko buruak, alkatearen edota dagokion*

Es importante tener en cuenta que es necesario, por aplicación analógica del art. 126.1 T.R.R.L., el informe o estudio del Jefe del departamento de personal al inicio del expediente a instancia de Alcaldía o

*ordezkariaren eskariz, txostena edo azterketa egitea. Bertan zehaztasunez jasoko da proposatutako langileen antolaketa, hots, lanpostuen, ordainsariaren, osagarrien, eginkizunen, betetzeko eta sartzeko moduaren deskribapen xehatua.*

*Eta kasu honetan Ermuko Udal Idazkariak dagokion nahitaezko txostena eman du 2020ko urriaren 29an, eta honako aldaketa-proposamen hau aurkeztu du bertan:*

***LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETAK***

*Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoari jarraituz eta Konstituzioak ematen duen toki-autonomiak zentzutik eratorritako udal-eskumen eta autoantolaketa-ahalmenarekin bat etorriz, Lanpostu Zerrendan (aurrerantzean LPZ) ondorengo aldaketak aurkeztu dira egiteko, udal honetan lan egiten duten langileen plantilla herritarrek administrazio publikoei eskatzen dietenari arin eta modu eraginkorrean erantzuteko erronka eta beharrizan berriei modu objektibo eta eraginkorrean apurka-apurka egokituz joateko.*

***LEHENA: Lanpostu-zerrendaren aldaketa 2021 urterako***

*Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoari jarraituz, 2021 urterako LPZrendaketa partziala aurkezten da onartzeko eta ondoren argitaratzeko.*

***1.-.Atxikipen-aldaketak***

*Udalaren antolaketa-ereduak honako atxikipen hauek egokitzea eskatzen du,*

mediante providencia de la Delegación correspondiente. Aquél deberá contener de forma precisa la ordenación de personal que se propone, es decir, deberá llevarse a cabo una descripción detallada de los puestos, retribución, complementos, funciones, provisión y acceso.

El Secretario municipal ha emitido el correspondiente informe preceptivo en fecha 29 de octubre de 2020, en el que presenta la siguiente propuesta de modificación:

**MODIFICACIONES EN LA RPT**

De conformidad con la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, con las competencias municipales y la capacidad de autoorganización derivada del sentido de la autonomía local consagrada por la Constitución, se presentan estas modificaciones en la Relación de Puestos de Trabajo (en adelante RPT) con el fin de ir acomodando de una manera más objetiva y eficaz la plantilla del personal que realiza su trabajo en este Ayuntamiento a los nuevos retos y necesidades emergentes de dar respuesta rápida y eficiente a las nuevas demandas que presenta la ciudadanía a sus administraciones públicas.

**PRIMERO: Modificación de la relación de puestos de trabajo para el año 2021**

De conformidad con los artículos 13 y ss. de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública Vasca se presenta para su aprobación y posterior publicación la modificación parcial de la RPT para el año 2021.

**1. Cambios de adscripción**

El modelo organizativo del Ayuntamiento requiere de la adecuación de las siguientes

*lanpostu bakoitzari esleitutako funtzio eta eginkizunak bete ahal izateko.*

*a) 117 lanpostua: Gardentasun eta komunikazioko teknikaria, Herritarren Parte-hartzea, Gardentasuna eta Kalitatea sailetik Alkatearen Kabinetera.*
*b) 206 lanpostua: Administraria, Kontuhartzailetzatik Diruzaintzara.*
*c) 113 lanpostua: Goi-mailako teknikaria, Pertsonen Kudeaketa sailetik Idazkaritzara.*
*d) 106a lanpostua: Euskara-itzultzailea, Herritarren Parte-hartzea, Gardentasuna eta Kalitatea sailetik Idazkaritzara.*
*e) 114a lanpostua: Administraria, Herritarrentzako Arreta eta Administrazio Elektroniko zerbitzutik (Abiapuntutik) Idazkaritzara.*
*f) 303 lanpostua: Smart City teknikaria, Berrikuntza eta Plangintzatik Toki Garapeneko alorrera.*
*g) 111 lanpostua: Idazkaritzako administraria, Idazkaritzatik Herritarrentzako Arreta eta Administrazio Elektroniko zerbitzura (Abiapuntura).*
*h) 503 lanpostua: Enpleguko teknikaria Prestakuntza eta Enplegu zerbitzura atxikitzen da..*
*i) 502 lanpostua: Prestakuntzako teknikaria Prestakuntza eta Enplegu zerbitzura atxikitzen da.*
*j) 416 lanpostua: Gizarte-politiketako teknikaria Prestakuntza eta Enplegu zerbitzura atxikitzen da.*
*k) 203 lanpostua: Diruzaintzatik Idazkaritzara.*

***2.- Ondorengo lanpostuen kasuan, berariazko osagarriak ondoko zenbatekoetara egokitzea.***

*a) Hiritarren Segurtasun alorreko Ofizial-burua, 601 lanpostu-kodea duena, Berariazko osagarriaren zenbatekoa:*

adscripciones al efecto de poder llevar a cabo las tareas y funciones asignadas a cada uno de los puestos:

a) Puesto 117 - Técnico/a de Transparencia y comunicación de Participación Ciudadana, Transparencia y Calidad a Gabinete de Alcaldía
b) Puesto 206 – Administrativo/a de Intervención a Tesorería
c) Puesto 113 – Técnico/a Superior de Gestión de Personas a Secretaría
d) Puesto 106a – Traductor/a de Euskera de Participación Ciudadana, Transparencia y Calidad a Secretaría.
e) Puesto 114a – Administrativo/a de Atención Ciudadana y Administración Electrónica (Abiapuntu) a Secretaría.
f) Puesto 303 – Técnico/a Smart City de Innovación y Planificación a Área de Desarrollo Económico
g) Puesto 111 – Administrativo/a de Secretaría a Atención Ciudadana y Administración Electrónica (Abiapuntu).
h) Puesto 503 – Técnico/a de Empleo se adscribe a Formación y Empleo
i) Puesto 502 – Técnico/a de Formación se adscribe a Formación y Empleo
j) Puesto 416 - Técnico/a de Políticas sociales se adscribe a Formación y Empleo
k) Puesto 203 – Asesor Jurídico de Tesorería a Secretaría

**2. Adecuación de los complementos específicos a las cantidades que se expresan de los siguientes puestos**

a) Oficial Jefe de Seguridad Ciudadana, código de puesto 601, importe del Complemento específico de 31.300,00€

*31.300,00€.*

*b) Hiritarren Segurtasun alorreko Ofizialorde-buruordea, 602 lanpostu-kodea duena, Berariazko osagarriaren zenbatekoa: 30.200,00€.*

*c) Hiritarren Segurtasun alorreko Lehen agentea, 603 lanpostu-kodea duena, Berariazko osagarriaren zenbatekoa: 22.850,00€.*

***3. Zuzendari lanpostua sortzea. 500 kodea hartuko du.** Ekonomia arloko Toki Garapeneko alorrari atxikia, A taldeko A1 azpitaldekoa, lanpostua betetzeko sistema izendapen lehiaketa izanik. Administrazio Bereziko Eskalan sailkatua dago eta eskatzen zaion titulazioa lizentziaduna, graduduna edo baliokideren bat edukitzea da, derrigortasun-data 2021/12/31n duen 4. hizkuntz eskakizunarekin. Bere lanpostu osagarria 29 da eta berariazko osagarria 26.133,66€koa, dedikazio portzentajea %100 duela.*

***4. Administrari laguntzaile lanpostu bat sortzea.** 417 kodea hartuko du. Gizarte arloko Gizarte Politiken alorrean Berdintasun sailari atxikia, C taldeko C2 azpitaldekoa, lanpostua betetzeko sistema izendapen lehiaketa izanik. Administrazio Orokorreko Eskalan sailkatua dago eta eskatzen zaion titulazioa eskola-graduatua, LH1 edo baliokideren bat edukitzea da, derrigortasun-data 2021/12/31n duen 2. hizkuntz eskakizunarekin. Bere lanpostu osagarria 16 da eta berariazko osagarria 13.997,99€koa, dedikazio portzentajea %100 duela.*

***5. Lanpostu Zerrendan Udalaren Kirol Erakundeko langileen lanpostuak** sortu eta txertatzea, Udalaren Kirol Erakundeko egungo lanpostu-zerrendan azaltzen diren baldintza eta betekizunekin:*

b) Suboficial Subjefe de Seguridad Ciudadana, código de puesto 602, importe del Complemento específico de 30.200,00€

c) Agente Primero de Seguridad Ciudadana, código de puesto 603,importe del Complemento específico de 22.850,24€

3. **Crear el puesto de Director/a con el código 500,** Adscrito al Ámbito Económico – Área de Desarrollo Económico, perteneciente al grupo A, subgrupo A1, cuyo sistema de provisión es el concurso, clasificado en la escala de administración especial, con requisito de Licenciatura, Grado o equivalente, con perfil lingüístico 4 y fecha de preceptividad del 31/12/2021, con complemento de destino 29 y un complemento específico de 26.133,66€ con una dedicación del 100%.

4. **Crear el puesto de Auxiliar Administrativo con el código 417,** Adscrito al Ámbito Social – Área de Políticas Sociales- Igualdad, perteneciente al grupo C, subgrupo C2, cuyo sistema de provisión es el concurso, clasificado en la escala de administración general, con requisito de Graduado escolar, FP1 o equivalente, con perfil lingüístico 2 y fecha de preceptividad del 31/12/2021 con complemento de destino 16 y un complemento específico de 13.997,99€ con una dedicación del 100%.

5. **Crear e integrar en la Relación de Puestos de Trabajo**, los puestos de trabajo del personal laboral del Instituto Municipal de Deportes que seguidamente se relacionan, con las mismas condiciones y requisitos que

Código de validación/*Balidazio kodea*
6A6O5B35131C0N0Q09KK

*3105 Kirol instalazioen koordinatzailea.*
*3110 Kirola teknikaria*
*3120 Mantentze-lanen arduraduna*
*3130a) Administraria*
*3130b) Administraria*
*3140 Mantentzeko langilea*

figuran en la actual relación de puestos del Instituto Municipal de Deportes:

3105 Coordinador de las instalaciones deportivas
3110 Técnico/a de Deportes
3120 Encargado/a Mantenimiento
3130a Administrativo/a
3130b Administrativo/a
3140 Operario/a Mantenimiento

***BIGARREN.*** *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bai Euskal Autonomi Erkidegoko Gobernuari, bai Estatuko Gobernuaren Ordezkariordetzari bidaltzea.*

**SEGUNDO:** Ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, y su remisión a la Comunidad Autónoma del Gobierno Vasco y a la Subdelegación del Gobierno

**6. *GABONETAKO ARGITERIAREN PROIEKTUAREN AURKEZPENA. 2020-2021KANPAINA***

**6. PRESENTACIÓN DEL PROYECTO DE ALUMBRADO NAVIDEÑO. CAMPAÑA 2020-2021**

**7. *EH BILDUK ERMUKO UDALEAN AURKEZTEN DUEN MOZIO UDAL FORU FUNTSA ETA ZORPETZEAREN INGURUAN***

**7. MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU SOBRE EL FONDO FORAL Y EL ENDEUDAMIENTO MUNICIPAL**

**8. *PSE-EE/PSOE ETA EAJ/PNV ALDERDIEK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, MORIAKO ERREFUXIATU-GUNEKO SUTEARI BURUZKOA***

**8. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PRESENTADA POR EL PSE-EE/PSOE Y EAJ/PNV SOBRE EL INCENDIO DEL CAMPO DE REFUGIADOS DE MORIA**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Hirugarren erabakia:***

*“PSE-EE/PSOE eta EAJ/PNV alderdiek Moriako errefuxiatu-esparruaren suteari buruz aurkeztutako Adierazpen Instituzionala onestea”.*

*Beste gairik ez dagoenez aztertzeko, bilkura amaitutzat eman da 10:55 direnean eta nik, Idazkariak naizenez legez, jasotako guztiaren fede ematen dut.*

*Akta honek bost horri ditu alde bietatik idatzita eta 241etik 250ra zenbakituta.*

**Tercer acuerdo:**

“Aprobar la Declaración institucional presentada por el PSE-EE/PSOE y EAJ/PNV sobre el incendio del campo de refugiados de Moria”.

No habiendo más asuntos a tratar, se da por finalizada la sesión levantándose la misma a las 10:55 del día de la fecha, de todo lo cual yo como Secretario, doy fe.

Consta esta acta de cinco folios escritos por ambas caras, que lleva número 241 al 250.

Fdo./Sin.:
Alcalde/Alkatea
Juan Carlos Abascal Candás
26-11-2020 08:49

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
26-11-2020 07:53